



B

BATEKIN

Gizarte Partaidetza
Participación Social

Elkartearen fitxa

● Elkartearen izena: ASASAM

● Esparrua (bakar bat aukeratu) :

Komunitarioa	Gizarte bazterketa	Dibertsitate Funtzionala	Garapenaren aldeko lankidetzak
Ingurumena	Babes zibila	Soziosanitarioa	Emakumea eta Genero berdintasuna
Giza eskubideak	Adikzioak mendekotasuna	Osasuna	Kirola
Hezkuntza eta Prestakuntza	Animaliak babestea	Immigrazioa	Kultura
Gazteria eta denbora libre	Euskararen sustapena		

● Erakundearen azalpen laburra: (4 lerro)

Buru gaixotasuna duten pertsonen, horien senideen, buru osasunaren arloko profesionalen, boluntarioen eta bazkide talde batek osatzen dugu ASASAM elkarte. Eritasun mentala duten pertsonen, bai banako eta bai kolektibo bezala, garatzeko aukerak izan ditzaten esparru osasungarria eraikitzeke ilusioa daukagu.

● Boluntarioen programa:

Boluntariotza programa: Programa honen helburua da herritarrek ASASAMeko zerbitzuetan gehiago parte hartzea eta erraztea. Boluntarioaren lana da entzutea, laguntzea eta konpainia ematea, erabiltzaileen bizi-kalitatea sustatzen duten giroak ahalbidetuz. ASASAMeko programen artean, boluntarioak honako lan eta eginkizunak egin ditzake:

Buru gaixotasuna duen pertsona BAKOITZARI hainbat ekintzetan LAGUNTZEA, hau da, profesional baten esku-hartzea behar ez den haietan (kontsulta medikoetara laguntzea, erosketak egitea, joan-etorrietan eta aire zabaleko jardueretan laguntzea, tramite burokratikoak...).

LAGUNTZA EMATEA Zentro Psikosozialaren, Zentro Okupazionalaren eta Aisia Programaren jardueretan, bai eta antolaketa lanetan eta sentsibilizazio kanpainetan ere.

● Egunak eta orduak:

Hasiera batean, ordutegia eta egunak daude boluntarioa parte hartzen ari den Programaren antolaketa mendean. Ahal den bakoitzean, ordutegiak boluntarioaren beharretara egokitzen dira.



● **Betebeharrak:** (adin nagusikoa izan beharra, formazioa...)

18 urtetik gorako gizon-emakumeak. Astean ordu libre batzuk dituztenak gurekin elkarlanean aritzeko. Jende konprometitua eta saiatua lan honetan. Diskrezioz, malgutasunez, arduraz eta errespetuz dihardutenak buru gaixotasuna dutenenganako. Motibazio gaitasuna, ekimena eta sen ona dutenak.

● **Harremanetarako:** (kontakturako pertsona, telefonoa, emaila, helbidea)

Harremanetarako pertsona, Rocio, telefonotan: 94 4045564 / 94 6551088

